

George Orwell, idazle enpeinatua

1984: Reality exists in the human mind

Joxe Azurmendi

G. Orwell (1903-1950) seudonimoaz mundu guztiak, aurten bereziki, ezagutzen duen idazle ingelesa, Eric Blair zen bere egiazko izenez, eta ez zen Ingalaterran jaioa, baina Indiako Bengalan (Motihari). Orwell seudonimoa Hego Ingalaterrako ibai baten izenetik hartu zuen.

Administrazio kolonialeko enplegatu apal baten semea zen. Halere ikasketak Ingalaterrako Eton ikastetxe famatuan egin zituen, beka bati esker: merezi du gogoratzea, A. Huxley erè (*Bai mundu zoragarria*), beste idazle utopiko ingeles handia, Eskola honetatixe atera zela.

Sozialista zen gazte-gaztetatik (orduko sozialismoan). 1922-1928 urteetan, 19 urterekin enrolatuta beraz, Birmaniako «Indian Imperial Police»ko ofizial bezala serbitu zuen. Sergento. Polizia honen praktikak eta ingeles inperialismoa («gansterismo hutsa gehienbat») salatuz, zerbitzuari zaputz egin eta 1934ean *Birmaniako Egunak* («Burmese days») publikatu zuen. Hasiara honetatik jadanik, Orwellek idatzi duen guztia izango da bere esperientzia pertsonalak oso markatua.

Horrelaxe da, Indiatik itzuli eta, enplegurik eta ogirik gabe, miserian egin zituen urte bohemioren nobela autobiografikoan ere, *K.O. eta fuera Parisen eta Londonen*, 1933 («Down and out in Paris and London»). Hi-riotan, denetatik eginez bizi izan zen urte batzu (clochard, restauranteetan harrikoa egin, eskola partikularrak eman, liburudendan saltzaile, etab.), eta asko idatziz. Baina idatzitakoak argitara nahi zizkionik ezin bait zuen aurkitu, bizi ere ezin bizi literaturatik, eta inkesta sozio-ekonomiko bat burutu zuen krisi ekonomikoaz eta meatzetako langabeziaz, *Wigan kaira bidea*, 1937 («The Road to Wigan Pier»). Orwell ekonomikoki pobre bizi eta hil zen.

Espainiako gerra zibila hasi da (1936-1939). Orwell, antifaxista porrokatua, berehala sartzen da Errepublikara, armak eskuetan faxismoa borrokatzera. Baina POUMeko milizietan enrolatu zen («Partido Obrero de Unificación Marxista»), Kataluniako sozialista ezkertiar radikalekin bezaraz, ez Brigada Internazionalan. Frontean zaurituta (bala batek lehasama pasa zion alderik alde), Bartzelonara erretiratu zuten, justu hiri hartan gerra zibilaren barruko gerra zibila lehertu zen egunetan, komunisten eta «anarkisten» artean, ezkertiar radikalen likidazioarekin bukatuko zena (anarkista, trozkista, POUM). Orwell ezkertiar galtzaileon alderdian paratu zen eta bere larrua Espainatik larri-larri aldeginenez salbatu zuen, komunisten pertsegizioari klandestinoki ihes eginez. Gorabehera hauen inguruan *Omenaldia Kataluniari*, 1938, literarioki perla bat, politiko eta ideologikoki oso polemikoa, idatzi zuen («Homage to Catalonia»).

«La guerra civil española, idatzi du Raymond Carr-ek *Orwell y la guerra civil española*-n, dio lugar a un torrente de literatura mala. *Homenaje a Cataluña* es una de las pocas excepciones». Ikus bedi artikulu honetan Espainiako gerra zibileko ezkertiarren problematika berezia, hots, komunistek zergatik eta nola zanpatu zituzten ezkertiar radikalak eta haien iraultza sozial espontaneoak, estrategia sobietar fronte-populistaren alde. Urte haietan Europako intelektual ezkertiarren artean obligazioa zen komunistekin sinpatizatzea eta guztiek ontzat ematen zuten beste gabe Espainiako komunisten jokabidea. «Solamente unos pocos espíritus fuertes —entre ellos, Victor Serge y Orwell— tuvieron el valor de luchar contra el clima general del mundo literario y contra las influencias de los comunistas en aquél. Por lo tanto fueron rechazados y boicoteados. El *New Statesman* rechazó los artículos de Orwell sobre España; la prensa de París prohibió la publicación del relato escrito por Victor Serge del asesinato de Ignacio Reiss por la policía soviética. Fue esta negativa de los círculos literarios de izquierda a afrontar la verdad, por desagradable que fuese, a defender la dignidad humana, lo que verdaderamente repugnó a Orwell y Serge (...) Fue entonces cuando escribió rápidamente, y con gran pasión, su *Homenaje a Cataluña*, antes de que se supiese la noticia del asesinato de Andrés Nin por los comunistas. El editor Gollancz rechazó *Homenaje* sin leerlo. En aquel ambiente no se vendió más que un puñado de ejemplares» (R. Carr).

Agian ezaguna da, baina abertzaleen jokabideaz ere eztabaida bat badago, edo egon da, Bilboren defentsari buruz, eta, parentesi artean, Orwellen pasartetxo bat aipa genezake bide batez: «...Faxistek Bilbo setiatzen zuten orduantxe, eta Gobernuak ez zuen ezer egiten salbatzeko. Hiri [Bartzelona] osoan euskal ikurrinak eseki bai, eseki ziren, kafetxez-kafetxe neskatzak ibili ziren eskean itsulapikoarekin, eta “defendatzaile heroikoei” buruz ohizko irrati-saioak entzuten ziren, baina zinezko laguntzarik eman, ez zitzaien eman euskaldunei. [Madrilgo] Gobernuak joko bikoitz bat jokatzeko zuela, pentsa zitekeen».

1939, bigarren Mundu-Gerra. Orwellek BBCan lan egiten du, gerra-propagandan, berriro faxismoa borrokatzen. Eta saio politikoak publikatzen.

tzen ditu: *Balearen barruan* («Inside the Whale») eta *Lehoia eta Adarbakarra* («The Lion and the Unicorn»), biak 1940. Zenbait kritikoren eriztiaz, Orwell literatoa saiolari gisa da hoberena. Gaur haren saioen bildumak lau liburuki betetzen ditu.

Kataluniako esperientziaren ondoren biraketa bat eman da Orwell baitan. Gaztetako iraultzaren optimismo berainezkoa kraskaturik geratu da; etorkizunari buruzko gogoeta autokritiko baten aroa hasten da. Faxismoa, stalinismoa, hainbat «iraultza» eta bi Mundu-Gerra..., nora doa gizadia? Faxismoa garaturik jadanik eta bere berrogeigarren urteen hasieran, *Abereen etxaldea* idazten du lehenengo, 1945 («Animal Farm»), Iraultza Sobietarraren kritika, stalinismoaren kritika hobea. Etorkizuneko gizartearen problema gehiago sakonduz, 1984 nobela antiutopikoa, edo utopia beltzekoa, argitaratzen du 1949an («Nineteen Eighty Four»). Literarioki proiektu zail bat; obra bera, autoreak hiltzera zihoala gaiso idatzia, troskoilo samarra nire gusturako, ondo bukatu gabe utzita balego bezala. Samjatin eta baino askoz sakonagoa halere, eta osoagoa, boterearen kritika bezala.

«Utopia beltz» honetan Orwellek ez profeta gisa, baina analista sozial eta politiko kritiko gisa lan egin du: «ez zuen etorkizuna aurrikusi nahi, baina orainaldiaren inplikazioak azaldu» (W. Cronkite). Huxleyren edo Samjatinen utopietan bezala, 1984ean mundu totalitario arras desgizatu, burokratizatu eta zeharo kontrolatu bat deskribatzen zaigu. Mundu absurdu bat, non Bakearen Ministraritza bait da amaigabeko gerraren programatzaile eta arduraduna, Maitasunaren Ministraritza errepresio ikaragarriarena, Egiaren Ministraritza propaganda eta garun garbiketarena, etab. Kontrol poliziakoa erabatekoa da (edonon TBak, mikrofonoak, etab.), eta hain deabruzki perfektionatua, non edozeinen eta bakoitzaren pentsamendua bera kontrolatzeko gauza bait da. Kontrol honetan elementu bortitz bat hizkuntzaren manipulazio teknikoa da; itzulpen batean zaila da aditzera ematea nola funtzionatzen duen. Hizkuntza «zaharra» (ingeles arrunta) dena «birlaboraturik» dago, telegrama-hizkuntza baten antzera moztua eta laburtua, ñabardura eta konnotazio subjektibo (pertsonal) oro epai eta kimaturik. Goi-mailakoen hizkuntza guztia bisilabikoa da (geroago batetan denek ikasiko dute horrela hitzegiten) eta konputagailu bati ordenak emateko moduzko hizkuntzaje batetan komunikatzen dira elkarrekin. Egin litekeen krimenik doilorrena pertsonalki pentsatzea da («crimethink»), eta «pentsamenduaren polizia» berezi batek pertsegitzen du (*Pentspol* edo horrelako zerbat esan beharko genuke «Thinkpol»). Egiak eta gezurrak ez dute balio autonomorik, zer den zer Estatuak erabakitzen du, eta «pentsamendu bikoitza» da Estatu filosofiarren ardatza («doublethink», beti dena bi silabakoa).

Nobela orainaldian dago idatzia. Errealismo handiz. Haatik, fikzioa dela, modu askotan iradokitzen da, estiloaren aztertzaileek diotenez lehengo esalditik bertatik: «Apirileko egun garbi, hotz bat zen eta erlojuak hamahiruak ari ziren jotzen» («... and the clocks were striking thirteen»: erlojuak «hamahiruak» jotzea, ordea, euskaraz bezala, ezohizko esamo-

dua da gaurko ingeles arruntean). Ipuina edo gertakizuna, berriz, oso sinplea da: protagonista, Winston, Egiaren Ministraritzako Record-Sailean dago enplegatua, kontrol-lanetan beraz (historiaren kontrolean, zehazkiago). Dena dago programatu eta kontrolaturik, bizitza sentimental eta sexuala ere bai, baina Winston isilpean eta ezkutuka Juliarekin maitemintzen da, esperientzia sentimental honetatik protesta politikoaren sentimendua eta disidentzia ideologikoa bizten zaiela. Poliziak laster deskubritzen du krimen hau, eta «berreziketa» prozesuaren hiru mailak zehar (lehenengo zigorra eta torturak; gero berreziketa doktrinala: bi gehi bi egiaz bost izan daitekeela onartzeraino, Estatuak hala nahiko balu; azkenik berreziketa morala, Anaia Handia bihotz-bihotzez maitatzeko), Winston Estaturako eta gizarterako herrirabazten da. «He had won the victory over himself. He loved Big Brother», bukatzen da nobela.

Integritate eta adore makurrezinezko gizona, sobornaezina, puritanao, maiz esan da, Frantzian Camus izan zena, zela Orwell Ingalaterran.

1984 nobela oso konplexua da. Hainbat alderdi du eta hainbeste leku-tatik begira liteke. Iruzkín gehienek, aurtén, Orwellen Soviet Batasunaren eta komunismoaren kritika destakatu dute berriro. 1984 Estatu-nobela bat da, eta ez da dudarik, Soviet Batasuna ere kritikatzén duela (beste edozein Estatu baino gehiago, gainera: milaka urtetako askatasun eta iraultza mugimenduaren harian dagoenena, zuzén hala okér, bera delako ere). Uste dut, halere, ispilu bat aurrean daukagunean, onestoena bertan geure aurpegiko zimurrak eta makurrak ikustea dela, beste inorenékoak gogoratu z geure burua engainatzen ibili gabe. Problema Estatuá da: gure problema gure Estatuá. Estatu handi, boteretsu, munstroak; administrazio handi, boteretsu, munstroak, «300 millones» hizkuntza handi, boteretsu, munstroak (zertxo da munduan ibiltzeko euskara kaxkar hau eta zer Euskal Herri pittin hori?)... Dena handi, boteretsu eta munstro. Eta kontrol handi, boteretsuen sare munstro bat mundu guztian.

«Behiala, idatzi zuen Orwellek 47ko saio batetan (*As I Please*), nik absurdutzat joko nuen, ehun mila gutxi batzuk baizik hitzegiten ez duten gaelikoa bezalako hizkuntza arkaiko bati bizirik eutsi nahi izatea. Gaur ez nago hain seguru».

* * *

Kontatzen du Claudin-ek *Revista de Occidente*-n, nola aurkitu zen, Alderdi Komunistaren Pariseko buruzagitzan lanari ekiteko 1954ean Soviet Batasuna utzi behar zuenean, liburutegia eramateko buruhaustearékin. Liburu denak ez zegoén garraiatzerik eta

beharrezkoenen hautaketa bat egitea erabaki zuen. Berrogeitamar liburukitako Entziklopedia Sovietar Handia, nolanahi ere, eraman nahi zuen. Sovietarrak prest zeuden liburuok Parisera bidaltzeko. Baina problematxo bat sortu zen: beste berrogeitabederatziak bai, baina bostgarren liburukia, abisatu zion adiskidetsuki Alderdi Komunista Sovietarraren Komite Zentraleko burkide batek, aurretik orrialde batzu ordeztatu gabe ez zegoen Soviet Batasunetik kanpora bidaltzerik. «Uler ezazu, esan zion, Beriaren arloa da».

Halaxe zen. Orrialde horietan Beriaren gorespenezko biografia zeterren, Stalinen azkeneko hamabost urteetan komunismo sovietarraren buruzagi gorenetakoa eta errepresio-aparatuaren nagusi bezala haren eskuineko eskua izandakoarena, argazki handi batekin. Baina Stalin hil eta behingoan burukideek likidatu egin bait zuten Beria. Entziklopedia Sovietar Handiko erredakzioak bostgarren liburukian Beria kenduz geratzen zen orrialde-hutsunea betetzeko soluzio bat asmatu behar izan zuen arin baino arinago: Bering itsasartearen azalpena tiratuz, alde batetik, eta leku gehiago emanez bestetik ondorengo Berkeleyri, lehen tratamendu kaskar batekin utzitako Gotzain anglikano idealista, Leninek gogor kritikatuari, zuloa estalita geratzen zen. Orrialde berriok harpidedun guztiei bidali zitzaizkien, ohartxo batekin: «Entziklopedia Sovietar Handiaren abonatupei: ESHren argitalpen estatal zientifikoek gomendatzen dute, bostgarren liburukiko 21, 22, 23 eta 24 orrialdeak moztea, 22 eta 23ren arteko argazkia orobat, eta horien lekuan ondoko testua ipintzea». Eta nola egin esplikatzen zuen: «ebaki bitez aipatutako orriak artaziekin edo bizarra mozteko labainarekin, baina bizkar kontran goitik behera zirrinda bat gordez, orrialde berriak bertan itsasteko».

Oso metodo sinplea, orain eta honez gero existitzen ez den edozeini, lehenago ere inoiz existitu izana borratzeko. Aurrerantzean Beriaren izena ez zen ikusiko gehiago egunkari eta aldizkarietan, baina ezta historiako liburuetan edo Entziklopedietan ere. Ez museoetan, ez inon ikusiko zen gehiago haren irudia. Ez zuen existitzen, sekula ez zuen existitu izan.

«Iraganaren nagusia etorkizunaren jabe da»

Kasu hori aipatu dut, Winston-en ogi- eta lanbidea horixe zelako, Orwellen 1984 nobelan. Norbait «desgrazian» erortzen deanean, ezabatu eta deuseztatu beharra dago. Baina norbait egiaz ezabatzeko ez da aski hura fisikoki desagertaraztea jendearen be-

gien aurretik. Izpirituetatik ere borratu beharra dago, garaikideen eta gerokoen memoriatik ere garbitu beharra dago erabat, iraganalditik ere suntsitu. Beraz, historia berridatzi beharra egongo da: beraz, Urriko Iraultzaren esplikazio oso bat idatzi beharko da, Trotzki gabe, edo ahalik gutxienarekin; Armada Gorria Trotzki gabe antolatuko da, etab. Eta, beraz, hark egindakoak eginak izan bait ziren, beste norbaiti eginarazi beharko zaizkio.

Horretan aritzen zen Winston, nobelako protagonista, ez dakit zein urtetako martxoaren 17ko *Times* zuzentzen, esate baterako, aspaldi samarrekoa: orain desgrazian eroritako norbaiten orduko egintzen albisteak orainaren arabera zuzentzen eta berridazten. Orainaldia, izan ere, ez litzateke orainaldi guztiz arrazoizkoa, iraganaldia orainari puntuz-puntu eta arrazionalki zeharo egokituko ez balitzaio. Bestea, historian mentura eta kasualitatea onartzea izango litzateke. Edo, okerrago, orainak elementu ilogiko batzu badituela, aitortzea. Iraganak nahitaez oraingo orain honexena eta honexen iragana bakarrik izan behar du, lerroz-lerro derrigortasunezko katez orainari lotua, bestelako orain posibleren batzuren posibilitaterik gabe bere baitan.

Logikoa da. Historia lege zehatz eta zientifikoen arabera desarrolatzen bada, guztiz erreal eta inmediatea lerro historikoan oraina bait da, orainaren errealtateak argitzen du iraganaldian ere zerk merezi duen eta zerk ez errealtatearen izenik eta kontsiderazioerik. Desgrazian erori dena sekula ez da egon grazian, sekula ez da erreala izan, lehenago ere. Ilusio hutsa zen. Eta erreala ez bazen, ezabatu eta «lurrindu» egin behar da lehenagotik ere, memoriatik xahutu, suntsitu eta ahaztu, argi-txakurren ilusioak edo ameskaitz bat bezala.

Absurdua dirudi, eta ez da. Gauzak, seguruena, errealtatean ez dira nobela utopiko baten perfekzioarekin gertatzen. Baina euskaldunok badakigu, esate baterako, zenbat ari zaigun kostatzen geure memoria historikoaren errekupeazioa. Ahalegin honetan sartzen dena ongi konturatzen da, Estatuak nola bere kontura, oraina ezezik, iragana ere monopolizatu duen. Irakaskuntza guztia kontrolatzen du. Ideologiaren arteko jokoa, kontzientzia historikoa. Goto inbasoreak noblezasun espainolaren odol-emaileak dira, «arabeak» aldiz zazpirehun urtez beti arrotzak, Cid Campeador espainola da, Boabdil ez, Karlos I.a bai... Oraingo Estatuaren zentzuan baloratzen eta gogoratzen da lehenagoko historia. ETA orain gaiztoa bait da, lehen ere gaiztoa izan zen, beti gaiztoa izan da... Oraina eta geroa ezezik, Estatuak lehena ere dekretatzen digu. Bere aparatuek dauzka lehena berregiteko.

1984: Estatua da tiranoa

Orwellen idazkietatik, 1984 lan handiago da, baina gustorago irakurtzen da *Abereen etxaldea* (nik neuk *Omenaldia Kataluniari* gustoraena. Manuel Iruxokoa begirunez aipatzen da gerra zibilari buruzko obra honetan). Errazago ulertzen da bigarrena: bere burua irensten duen iraultza garailea, zapalkuntza-sistema berri bilakaturik.

Abereen etxaldea historia sinplea da: abereek iraultza egiten dute etxeko jaunaren aurka (gizona), zerriek gidaturik. Etxaldeko lanaren berrantolaketan zerriak izango dira gidari («besteen lana zuzentzea eta gainbegiratzea zen beren eginkizuna. Beren jakinduria handiago zenez, normala zen etxaldearen agintea beren esku geratzea»). Berek eratuko dute etxaldearen defentsa, eta kontrairaultzaileen eta ajenteen aurkako polizia (zakurrak). Azkenean berak bihurtuko dira tirano berriak, itxura fisiko ere gizonaren pareko (atzeko hanka bien gainean ibiliz). Iraultza sobietarraren parodia bat. Iraultza bat, bai, baina abiapuntura itzulbiratzeko iraultzaren adiera astronomikoan.

Sinboloak oso sinpleak: Benjamin asto zahar eszeptikoa, bela beltza, Boxer zaldi-laneko heroia, motza bezain fededun irmea, Minimus poeta, Napoleon eta Snowball zerriak (Stalin eta Trotzki), etab. Prozesuak ere oso sinpleak eta garbiak: kasta burokratiko berriaren finkapena eta pribilegioak, zerebro-garbiketa ideologikoa, errepresio fisikoaren berrezarketa, jauntxoaren nortasun-kultoa, askatasun-filosofia iraultzailearen murriztapena eta manipulazioa, lehenengo zazpi «agindutan» labur-bildurik (pentsamenduaren ukoa dena, beste gabe), azkenean bat bakar hone-tantxe: «abere guztiak berdinak dira, baina batzu berdingoak» («all animals are equal, but some animals are more equal than others»). Famatua egin den esaldia.

1984 ez da *Abereen etxaldea*-ren jarraipen soila. Intelektual ezkertiarren okerra, esaten zuen Orwellek Espainiako gerraren garaian, antifaxista izan litekeela pentsatzea da, barnagotik antitotalitario izan gabe. Totalitarismoa ez da faxismoaren eskusibarik (ezta komunismoaren eskusibarik ere). Ideia honen desarroiloa da 1984.

Zalantza gabe, deskribapen-material asko hartu du berriz ere Alemania nazitik eta Soviet Batasunetik (XX. mendearen hasieretan, bi kasu horietan ikusi ahal izan bait da ongienik, Estatu-bote-rearen desarroilo azkar eta erraldoi munstroa). Baina 1984-ean gaia

ez da nola askatasun-mugimendu sozial bat zapalkuntza-estruktura are gogorragoetan amiltzen den. Europako «arrazoizkotasun» historia guztia da, nobela honek auzitan jartzen duena, tesi garbi batekin: askatasun bila, milaka urtetan, gizonak hainbat tirano txiki irrazional porrokatu ditu banan-bana, ohartu gabe, azkenean, tirano txikiagoak denak apurtu zituenean, egiaz tirano absolutuaren aginte mugagabea berak inauguratzen zuela: gizartearen erabateko Estatu-kontrol arrazional eta zientifikoa, non gizarteak eta Estatuak bat-bat egiten bait dute, gizabanakoarentzat inolako beste lekurik gabe munduan, Estatuaren engranaia barruko pieza gisa ez bada.

Hori da nobela: Estatuaren guztiahalmena. Analisi hori (kontrola, errepresioa, etab.), nobela irakurritz bakarrik segi liteke. Baina ez da Estatu horren kanpokaldea, orain begiratu nahi nukeena.

Historiaren filosofia txiki bat

1984 nobelaren barruan histori filosofiaren historia txiki bat egiten da. Orwell beti komunismoaren kritikoa gisa aprobetxatu nahi dutenek hori ez aintzakotzat hartzea, konprenigarria. Baina oinarritzkoa, bigarren Mundu-Gerraz geroko idazle honen kezka eta pentsamendua ulertzeko.

Harri-aroz gero, esaten da Goldstein-en luman ipinitako historia honetan (Trotzkiren egiazko izena Bronstein zela gogoratuko da), gizadia goi, erdi eta behereko hiru mailatan bereizia egon da. Goi-mailakoen grina botereari eustea izan da beti. Erdi-mailakoena, goikoak uzkali eta berak agintari altxatzea. Beherenekoena, diferentzia guztiak ezabatu eta gizonak oro berdinak izango liratekeen gizartea zabaltzea mundu guztian.

Erdi-mailakoek historian zehar hainbat iraultza egin dute. Beheretarrek laguntzen zieten, iraultza horiek beti askatasunaren eta justiziaren izenean egiten zirenez gero. Borroka irabazi orduko, alabaina, erdi-mailakoek berehalaxe makurrarazi izan dituzte beti behe-mailakoak berriro beren lekura. Poliki-poliki, gero, goitik eroritako edo goraino igo ezin izandako erditarrekin, eta destakatu diren behe-mailako batzurrekin, nahas-mahas, erdi-maila osatu izan da berriro. Eta berriro hasi da betidaniko borroka denboraren gurpilean.

Gizartearen funtsezko egitamu hau ez da sekula aldatu. Ezin

esan daiteke, prozesu honetan ez dela gizadiarentzat aurrerapen ekonomiko edo sozialik lortu. Aitzitik. Baina hobakuntza sozial, ekonomiko, moral guztiek, iraultza eta erreforma guzti horiek, ez dute milimetro bat ere aurreratu gizonen arteko berdintasuna gehiagotzen, edo hiru mailen arteko diferentzia pittin bat ere txikia-gotzen.

XIX. mendearen azken aldera, begirale asko hasi zen txandaketen erregela historiko-sozial honi antzematen. Orduan bururatu ziren filosofiek, bada, ez lerro xuxen bat bezala, baina itzul-biraketazko prozesu ziklikoaren modura adierazten zuten historiaren mugimendua. Hauentzat, historiari zikloak berez dagozkion moduan, zikloei berez dagozkie klase-diferentziak barnean: horrela, gizarteko maila-desberdintasunak historiaren berezko elementu eta ezinbesteko lege bezala ageri ziren; historiaren kontrako metafisika edo mito hutsa zela aurkitzen zen diferentziarik gabeko gizartearen amets zaharra.

Egon, lehenago ere egon izan ziren, gizarteko diferentziak berdintzerik ez zegoela, esaten zutenak. Diferentziak beharrezkoak zirela gizartean eta historian. Baina goi-mailako agintari-jendea izaten zen, hori arrazonatzen zuena. Orain, aldiz, anaitasun gizatiar unibertsalaren idealari lotsarik batere gabe eraso zitzaion alde guztietatik, oinarri logiko eta arrazoizkorik ez zuen begitasunari bezala, eta kritikoa ez ziren agintarietakoak, gehienez ere agintea eskuratzea itxaron zezaketen erdi-mailakoak baizik. Lehenago erdi-klaseek berdintasunaren izenean egiten zituzten iraultzak, irabazi eta gero beren tirania ezartzeko bazen ere; orain ordea, alde aurretik proklamatzeko zizuten tirania, utopia eta pentsamendu mitikoa gainditzen duen arrazoimen lehorraren eta errealismoaren izenean, edota goratasun garaiaigoko nortasun berriaren izenean ere.

Orwellek ez du izenik aipatzen. Baina izen batzu (Darwin, Carlyle, etab.; edo Nietzsche, Spengler) neke handirik gabe suposa litezke.

Postsozialismoa

Puntu honetan jauzi bat egin behar da filosofiatik 1984-eko utopiara («1984» ez da aurtan: Orwellek 48an idazten zuen, eta etorkizuneko noizpait, zehaztu gabeko edozein denbora, adierazteko, orainaren ispilu bezala, zifrak atzekoz aurrera itzuli zituen:

48/84). Nobelako utopian, iraultza handiaren ondoko mundua hiru Estatutan bereizirik dago. Hirurak hain berdinak bait dira, bat deskribatzea aski da hirurak deskribatzeko. Nobelan Ozeania deskribatzen zaigu (Ameriketa biak, Atlantikoko uharteak, Irla Britainiarrak barne, Afrikako hego muturra eta Australia: horrek bakarrik erakusten du, Orwell ez dela kritikatzeko ari komunismo sovietarra bakarrik). Hiru Estatuok iraultza ondokoak eta, nola-bait esateko, postsozialistak dira. Ozeaniako pentsamendu ofiziala Ingsoc da (English socialism); Eurasiakoa Neoboltxebismoa; Ekiasiakoa Heriotzaren kultoa. Munduak, bada, aspaldian darman sozializazio-prozesua burutuz, «kolektibismoan» bukatu duela, imajinatzen du nobelak.

Sozialismoa, esaten zaigu filosofiaren historiari, XIX. mende-hasieretako filosofia bat izan zen, antzinako esklabuen maxinadetatik zetorren hari baten azken puntta, oraindik elementu utopikoz oso kargatua. Baina XX. mende-hasieratik aurrera, korronte hau ere arrazoimen huts-garbiaren eta errealismo zientifikoaren bidetik sartu zen, elementu «humanista» utopiko guztiak beregandik hastantzeko deliberoz, gero eta osokiago, askatasunaren eta berdintasunaren jomuga ahaztu eta helburutzat hartuz gizartearen antolaera perfektu eta guztizko bat, arrazionala eta zientifikoa.

Gero, gainera, 1930 inguruko nahaste-borraste giroan, harremanak eta ohiturak biziki zakartu eta dorpetu ziren gizartean. Ehundaka urte lehenago abandonaturiko modu krudelak eta basakeriak erabiltzen ziren berriro: preso-atxilotze masiboak, inolako epaile-agindurik gabe; gerrako presoen erabilera bortxa-lanetarako esklabo gisa; torturak eta suplizioak, edozein aitortza ateratzeko presoari, zuzen ala oker, eta edonola kondentatzeko gero; justiziamendu publikoak; bahiturien harrapaketak; herri-olde osoen deportazioak... Eta intelektual progresista, argituenek defendatu eta legitimatu egiten zituzten izugarrikeria guzti horiek, «aurrerapen historikoaren prezioa» omen zirelako.

40 eta 50.ak, nobelaren arabera, guztien gerra-urteak izan ziren guztien kontra mundu guztian. Eta gerra-garai nahasi honen bukaera atomikotik irten da 1984-ak deskribatzen duen «postsozialismoa», munduko hiru Estatuotako egoera eta ideologia. Hau berau hiru printzipiotan biltzen da: «gerrak bakea esan nahi du», «askatasuna esklaberia da», eta «ezjakintasuna ahalmena da». Bistan dago, karikaturazko formulazio estremoak dela. Baina ikus dezagun apur bat.

Estatuaren hiru printzipioak

Hiru Estatuak beti gerran ari dira elkarrekin, etengabe koan, baina mugatuak (inoiz ez dago jokoan Estatuaren existentzia bera, baina Patagoniako arazotxo larriren bat). Nahita ere, ez elkar desegin eta ez menperatu ahal izateko potentzia militarrek dira hirurak. Hirurek teknologia militar guztiz aurreratua izanik, gerrak ere mugatuak izanik hortakoz, baina etengabe koak, gerraren egiazko garrantzia Estatu barrurantz duen eragin politikoarena da. 1984-ekoa gerra-gizartea da, betiereko gerraren gizartea hain zuzen, horrek esan nahi duen bizitza zibilaren disziplinaketa, propaganda ideologiko, etab. guztiarekin.

«Gerra berdin bakea» denok esperientzia daukagun zerbait da. Barne-problema ezkutatzeke, edo itoazteke, Estatuaren errekurtsio zaharra da, konfliktuak biztea beste Estatuaren batekin, edo periferietan sorginak eta deabruak deskubritzea. Jendea orduan botereari atxekitzen zaio kanpoko etsaiaren aurka, barneko problema azaltzen ditu eta gertuago dago aginteak eskatzen dizkion sakrifizioak egiteko: Malvinetako gerrak diktadurarekin berarekin adiskidetu zituen argentinarrak, sinestea zaila egiten zen entusiasmoe-taraino, etab. (Francoren garaiko Euskal Herriaren unanimitatea gogora liteke). Ongi begiraturik, errekurtsio hau oso zabala eta konplexua da. Ez dago gerra-beharrik, operazio bera erabiltzeko; edo, bestela esan, Estatu modernoek etengabe produzitzen dizute «gerra» hori (juduen, masoien, komunisten aurka), hots, «espiatze-aker» gaizto eta gaitz guztien errudunaren ardurazko kultibo sistematikoa. Elementu bat gehiago da, agintearen legitimazio-sisteman. Jendeterien barne-kohesioa eta boterearekin identifikazioa indartzen duten medio guztiak, alde batetik; agresio guztien deskarga «errudun guztizkoa»ren aurka bidera dezaketen teknika traskil zein errefinatuenak bestetik. Nahiko adibide da ETA egunotantxe.

Torturak, masakreak, sekuestro legalak (gero bat Auschwitzten eta bestea Panaman agertzeak zein diferentzia egiten dio sekuestroari berari?), gerra zikinak eta asesinato aginpide altuenetik enkargatuak, burlak eta kalumniak erakundeen eta defentsa gabeko pertsona pribatuen kontra, krimen publikoen ukatzeak eta estaltzeak... Orwellen nobelak, hori dena ez dela batere inmoral, erakusten du. Estatuaren moral bakarria horixe dela eta ez besterik. Ez dira horiek ezbeharrak edo deskuidoak, akzidente iragankorrak, Estatuaren martxa onean, baina argindarra edo goizeroko egunka-

ria bezain Estatu modernoaren osagarri naturalak, eta korrientiak. Inuxente, eskandalizatzen dena.

Erraz ulertuko da, hortik hara, «ezjakintasuna ahalmena da» esaldiaren zentzua: norberak ez pentsatu, ez jakin egin behar du berak ezer, zeren eta bere kasa pentsatuz ez bait luke egia pentsatuko eta egia jakingo. Egia Estatuak daki eta Estatuak pentsatzen du. Gizabakoitza subjektibismoan dabil. Beraz, zenbat ezjakinago norbera, dakienarekin jakinez eta pentsatzen duena Estatuarekin pentsatuz, boterearekin bateginago eta ahaltsuago. Ahalmena kolektibitatearena da. Kolektibitate indartsurik ezin egin daiteke bakoitza bere «subjektibismo indibidual»ean dabilenean mundu guztia. Hori anarkia litzateke.

Askatasuna berdin irrazionala

Askatasuna esklaberia omen delako esaldiak, «freedom is slavery», aparte aipatzea merezi du.

Nobelako iraultza atomikoaren ondoren Ozeanian agintea hartu zutenak burokratak izan ziren, zientifikoak, teknikoak, sindikatuetak funtzionariak, propagandistak, soziologoak, irakasleak, periodistak, politiko profesionalak. Lehenagoko klase agintarien aldean, soldata-kobratzaile izandako jende hau ez zen jabego-zale, aginte-gura baino. Teknokrata-izpiritu hauek bazekiten, ondasunak eta pribilejioak ongi gordetzeko bide hobereana ondasunen jabego pribatua abolitzea zela, komunitate soziala ondasun ororen jabe bihurtuz. Agintariak haien kargudun eta administratzaile besterik ez ziren izango. Indibidualki, horrela, agintari bakoitza ez zen ezeren jabe; kolektiboki denaren nagusi.

De facto gizartea berriz ere hiru goi, erdi eta behe-mailaz osatzen zen. Baina hiruron arteko betidaniko gatazkak nahasketa besterik ez zuela ekartzen eta, orain, soluzio erabateko bat aurkitu zitzaion, gizartearen egitamu finko eta aldaezin batetan, kolektibismo oligarkikoaren forman. Gizarte osoak interes bat eta bera izan behar zuen, pentsamendu bat eta bera, sentimendu bat eta berbera beti. Estatu osoak organismo banaezin bakarra eratu behar zuen: batzuk buru, besteak oin, esku, beso, bakoitza beti bere leku-lekuan, beti dena koordinaturik eta dena bat. Antolaera zientifiko eta ordenu sozial biribil hau bihurtu zen politikaren lehen eta azken helburu. Hori segurtatzea zen agintarien egiteko nagusia.

Beraz, perfekzioa ez zegoen jadanik denen berdintasunean, denak bakoitza bere-bere lekuan egotean baizik, goitik beheraino.

Eta perfekzioa ez zegoen askatasunean ere, baina unanimitatean eta disziplinan *Abereen etxaldea*-ko «disziplina, aberekideok, disziplina. Burdinazko disziplina»). Perfektoa makina da.

Horixe da Orwellen nobelaren muina: Estatu modernoaren gizarte-kontrola. Ez kanpoko mugimenduena bakarrik, baina baita izpirituen ere, barne-barneko pentsamendu eta sentimenduena. Euskal irakurketa batetan, kaiolan gauzkan Estatuaren hainbat gauza ikusten du ispiluan irakurleak. Utopia beltz errealitate bihurtua. «Erdi-Aroko Eliza Katolikoa bera tolerantia zen oraingo aldean», epaitzen du Goldstein-Orwellek.

«Español goibel eta beltzak, gizonak sutan kiskaltzen hain abilak», aipatzen ditu Samjatinek bere *Gu* nobela utopiko negatiboan. «Gu», hain zuzen, haren Estatuan ere bere kasa pentsa dezakeen «Ni»rik ez dagoelako. Samjatin errusiar utopikoak eragin handia izan du Orwellen nobelan. Eta errusiarraren bidez, karitatez eta menpekoenganako kupidaz kupidagabeko diktadura ezartzen duen Dostojewskiren Inkisitore Handiarekin topo egiten dugu. Bakarrik, Orwellen nobelan diktadura ez da karitatez egiten, antolagararen perfekzioa bera delako baizik azken helburu eta jomuga. Konstrukzio razional baten helburua perfekzioa eta transparentzia bera da, perfekzioagatik beragatik eta perfekzioaren beraren amorez. Ez haruntzagoko beste helbururen baten zerbitzuan (jende apalenzat hobe dela, edo beste zernahi).

Gizarte perfektuak ez du askatasunik behar. Hobe, gizarte perfektuak askatasuna ez dauka toleratzerik.

Askatasuna inperfekzioa da, irrazionala, aurrikusi ezinezkoa, ustegabekoa, indibiduala, koordinatu gabekoa, zientifikoki programaturiko araubidetik aldentzen dena. Zientifiko eta razionala infalibilitatea da. Razional eta zientifikoan ez dago diferentzia indibidualik: bi gehi bi denentzat lau da. Ez dauka ez izaterik. Razional eta zientifikoan inork ez dauka bestela pentsatzerik, bestelakoa izaterik, nola eta ez den gaisoa behintzat. Bere burua «bestelakoa» sentitzen duena, hots, norbera propio eta gizabanako «berezi» sentitzen dena, pentsamendu edo sentimendu diferentekin, erremedio gabe gaiso bat da, kasu patologiko sozial bat: hagin gaisoa bakarrik sentitzen dugu berezi eta partikular bezala, ez hagin sana. Sendatu beharra dago, beraz, gizartearen eta gaisoaren beraren onerako.

Desira indibidualak, fantasiak, askatasuna dira pefekzio eta zorian sozial matematikoki osoaren eragozpen bakarrak, desordenu eta krimen ororen iturburuak. «Askatasuna eta krimena elkarri lotu-loturik daude... hegazkinaren mugimendua abiadarekin loturik dagoen bezalaxe. Giza askatasuna berdin zero balitz, krimenik egiteko posibilitatea ere berdin zero izango litzateke» (Samjatin).

Samjatin «basa-gizon primitiboaren askatasun-egoera negargarriaz» mintzo da, aspaldiko bizimodu gaintuak gogoratu. «Arrazoimenak garaitu behar du!» hotseginez bukatzen da *Gn*.

Hizkuntzaren kontrola

Inpresio handia egiten duena, Orwellen nobelan, Estatuaren kontrol-bide agerikoak dira (mikrofono ezkuatuak, ispiak, poli-ziak, espetxeak, torturak), eta kontrol hori nola sartzen den egun osoaren barreneraino, lo ala esnai egon, lanean ihardun ala maitasuna egin, etxean, kalean, trenean, espektakuloetan. Begi-sare ikusezin batek inguratzen zaitu egun osoan. Airea belarriaz beteta dago («Big Brother is watching you»). Holtzak begiak, sasiak belarriak.

Inpresioa, bizitza oso-osoaren eta gizarte guztiaren martxa puntuz-puntu programatuak egiten ditu. Errealitatean ezingo litzatekeen zeharokotasunez, noski. Estatuak esfera «pribatu»rik ez duela ezagutzen, gogoratzeko, ez dago gaizki halere (ohitu egin gara gure telefonoen eta postaren kontrolerara): denean eta edozertan hain presente dagoelakoxe kasik erreparaezina bilakatu zaigun eguneroko Estatuari ohartzeko.

1984 Estatu-botere ahalguztidun, pertsonaren etengabe bortxatzailearen nobela utopikoa da: gurasoei kendu eta haurrak bereztatzen dituen, gazteak bahitu eta bere «soldadu» bihurtzen dituen, adiskideak eta etsaiak berak asmatu eta guri ezartzen, egia eta gezurra, moralasuna eta krimena berak erabakitzen, langabeziaren gainean etsipena eta konformidatea fabrikatzen duen Estatuarena. Deskribatuta dagoen moduan, agian ez da guztiz sinesgarria, hitzez-hitzez hartzekotan. Baina, uda honetantxe, Espainia edo Frantzia bezalako Estatu «demokratiko»en ispilu nahiko garbia gertatzen da.

Dagoen beste mila xehetasun utzita, hizkuntzaren kontrolarena azpimarra daiteke, beste ezerk bainoago medio honek nahi bait du arimaraino gizona lotu. Ikusi dugu: mementu batetan Estatuak erregulatzen du «asesinos» eta «banda» esan dadila, eta bat-

-batean informazio-medio guztiek terminologia berregokitzen dute, ortodoxiaren norgehiagoketa batetan bezala. «Ciertos medios han mostrado, komentatu dute B. Hodge eta R. Fowler-ek *Linguística orwelliana*-n, cómo los periodistas aprenden rápidamente el *ethos* del periódico particular para el que trabajan y su tratamiento estándar de los temas corrientes. Se dan cuenta de qué texto es aceptado sin cambios importantes y cuál es rechazado o alterado hasta hacerlo irreconocible. Un orgullo profesional parecido al que motiva a Winston los lleva a tratar de predecir qué es lo que será aceptado. Las reglas que se ponen en juego no son nunca enunciadas explícitamente, pero son entendidas e internalizadas, y el sistema se hace autorregulador mediante la autocensura anticipatoria». Estatuak ez dauka agindu beharrik, agindu baino lehen obeditu zaionean.

Hizkuntzalari eta filosofoentzat eztabaidagarria dirudiena (beharbada problemaren beste maila batzutan dabilzalako), politikoentzat garbi dago nonbait: hizkuntzak pentsamendua determinatzen duela. Horregatik politikoek ahalegin handiak egiten dituzte (zenbat Estatu agintekoiago eta handiagoak) hizkuntza erregulatzeko. Herri primitiboek ongi zekiten moduan, hitzak bere efikazia duela, bere «magia», errealitatea sortzeko, aldatzeko, ezkutatzeko edo desegiteko, Estatu modernoak ere ongi daki, gizartea kontrolatzeko hizkuntza kontrolatu behar duela.

En nuestros tiempos, idatzi zuen Orwellek saio batetan, el discurso y la escritura políticos son en gran parte la defensa de lo indefendible... Así el lenguaje político tiene que consistir en gran parte en eufemismos, petición de preguntas y pura vaguedad nebulosa. Aldeas indefensas son bombardeadas desde el aire, los habitantes sacados al campo, el ganado ametrallado, las chozas puestas en llamas con balas incendiarias: a esto se le llama pacificación. A millones de campesinos se les roban sus granjas y se los echa a andar por las carreteras con no más que lo que puedan llevar encima: a esto se le llama transferencia de población o rectificación de fronteras... Esta fraseología es necesaria si quiere uno nombrar cosas sin evocar imágenes mentales de ellas.

Bai, irakur itzazue albisteak: polizia, beti, «se vió obligada a intervenir...», «repelió...» (eta «repelitzen» duen guztietan bestea geratzen da beti hilda). Eta bai: bat-batean bandera espainola «la bandera constitucional» bihurtzen da; eta egun hartako diskurtuan «en este país...», esaten da.

Eta MULC, LOAPA, ZEN, esaten da. Orwellek, nobelaren eranskinean, *Komintern* hitza aztertzen du. Hitz honek «Komu-

nista Internazionale» laburtzen du, eta itxuraz ez du besterik egiten. Baina «Internazionale Komunistak», beste gabe, himno bat entzunarazten digu milaka eztaurratik, eta mundu guztian hedatzen den mugimendu baten irudia bizten du gure begien aurrean, barrikadak, bandera gorri itsaso bat, jende-olde zabalaren orroa eta beren anaitasuna. Baina hitzei bukaerak moztuz eta berezko esanahirik gabeko hiru silaba elkartzuz (kom-in-tern), dena nukleo irrazional, bizi eta zentzugabeko batetara murrizten dugu, «una palabra que puede pronunciarse casi sin prestarle un pensamiento, mientras que Internacional Comunista es una cláusula sobre la que está uno obligado a detenerse por lo menos momentáneamente». Historia bat, arima bat, bulego bihurtu da.

Orwellen nobelan Estatuak bere Hizkuntz Akademia dauka, hizkuntzaren manipulaziorako, eta azkenean (2050 aldera) Estatuaren interesen arabera hizkuntza berri-berri bat ezartzeko. Hizkuntza guztiz razional bat, balorazio eta sentimenduen konnotazio orotatik zuritua, aritmetikako zifra-mintzairaren arabera (adibideak nobelan bertan ikusi behar). Hizkuntza berri hartan, esplikatzeko du Syme akademikoak, «pentsamendu-krimena literalki ezinezkoa izango da».

Orwellek nobelari eranskin bat gehitu dio, Hizkuntza Berriaren printzipioei buruz hain zuzen. «The purpose of Newspeak, irakurtzen da hor, was not only to provide a medium of expression for the world-view and mental habits proper to the devotees of Ingsoc, but to make all other modes of thought impossible. It was intended that when Newspeak had been adopted once and for all and Oldspeak forgotten, a heretical thought, that is, a thought diverging from the principles of Ingsoc, should be literally unthinkable, at least so far as thought is dependent on words».

Idealismo absolutu bat

Azken finean Estatu modernoaren okerrena ez da kontrola, edo errepresioa, etab., baina bere naturaz beraz gezur erraldoi baten instituzionalizazioa izatea eta besterik ez. Sentimenduaren eta irudimenaren aurka (tradizioa, etab.), Estatu modernoaren arrazoi-menarena omen da. Baina hau (zeinek inkarnatzen du arrazoi-mena?), egia, etika, balioak, zientzia, berak egiten eta desegiten dituen (Estatu-) arrazoiak, arrazoi absolutua, funtsean eta egiaz ez da subjektibismo eta erlatibismo hutsa besterik, bi eta bi bost esan

ahal izaterainoxe. Absurduena ere itxurazko bihurtzeraino alegia, eta beharrezko bihurtzeraino.

Beren hitzetan Estatuok omen diren gizartearen arrazoizko etxea, ez da fikzio baten fikziozko etxea besterik. Berek asmatzen eta armatzen duten fikzio batena (historia berridaztetik hasiz eta hizkuntza berriak asmatzeraino), gero denei inposatzeko. Bergaminek salatzen zuen *impostura/imposición* bat-bikotea. Arrazoizkotasuna, esaten da; botere gorria, behar da ulertu. Baina zeren izenean jazarri *impostura* horri, aldez aurretik arrazoimena monopolizatu badizute? Arrazoimenaren izenean behintzat ezingo da jadanik. Samjatinek fantasiaren izenean, Orwellek maitasunarenean, nobelatu digute beren protagonisten errebolta. Baina biek porrot egingo dute.

«Uste duzu, Winston, galdetzen zaio interrogatorioan Orwellen protagonistari, iraganaldiak zinezko existentziarik baduela?... Konkretuki existitzen duela — espazioan?» Epaileak berak ematen dio erantzuna: «Errealitateak pentsamenduan bakarrik existitzen du, beste inon ez («reality exists in the human mind and nowhere else»). Baina ez gizabakoitzaren pentsamenduan, ekiboka bait daiteke, eta nolana ere epe labur baten buruan berak ez bait du gehiago existituko, baizik eta Alderdiaren pentsamenduan bakarrik, hau kolektiboa eta hilezkorra izaki».

Izan ere, nola izan lezake arrazoi, batek bakarrak, milioikaren aurka? Galdera horrek eraman zuen Sokrate heriotzara. Ez, ez dago kolektibitatearena beste egirik. Eta kolektibitatea gaur Estatu da, Alderdia, Anaia Handia.

«Ez da erraza zentzuduna (arrazoizkoa) izatera iristea», aitortzen du O'Brien epaile-torturatzailerak. Eta torturatzen jarraitzen du.

J. A.